


PENTEKOSTE JAIAK
PASCUA DE PENTECOSTES

BERGARA

82

EGITARAUЯ * PROGRAMA





agurra

Urtero bezala, presaka samar badere,
(izan ere, egun mugikorrak baitira festerenak...)
badatzigugu gure Pentekoste Jaiak eta
Bergararrén eta bisitari guztien egitekoas
«ONGI IGAROTZEA» da.
«ONGI PASATZEA» modu eta era askotakoa
izan daitekeenez gero, bakoitzak,
askatasunik osoonean, egin behar du
aukeraketa; baina norberaren askatasunak
albokoarenarekin parekatu eta
edostasuna eduki beharko du, hau da, bata
bestearekiko begirunezko harreman bat
da askatasuna.

Hona hemen «ONGI PASATZEKO» baliagarri
izan daitezkeen bide batzuk:
Ardurak bordaz kanpo bota, poza eta
humorea norbereganatu, Bergarartasuna
etara, guztirekiko kidetasuna sentitu,
urrun gaitzaketen gorabeherak ahaztu...
Honela, bada, «ONGI PASA» dezazutela.
Hauxe da opa dizuena, zuen Alkate

JOSE ANTONIO ZABALAK

BERGARA GAUR

Gure udal ardura bizkarreratzean, honoko hau, orokorki, beteko genuela, genion: Udal arloetan eta Bergararrei biziera aurrerakoia go bat eskaitezko, herri osoaren beharrei ahal den zuzenen eta egoien erantzuten ahaleginduko ginala, alegia.

Duela ehun urte eta gaurko bizimoduaren parekaketa egitea, behar bada, interesgarri litzaiguete eta ondorio ezkorra ateratzea ere posible izango litzateke. Epe bakoitzari bere giro berezia dago, eta gaurkoari teknologia kutsua dario. Baita ere, sarritan, ahozkatu ohi dugu «gure garaiak...!» lehengoen hobetasuna baleztatu nahirik. Eta gai honi buruz, hain zuzen, Lehen Errepublikako Lehendakari izan zen Frantzisko Pi Margall Jaun ospetsuak idatzitako «Las Nacionalidades» izenburua duen liburutikoz zati bat datorkit burura. Hitzez-hitz honela dio: «Madrilen zegoela, herri ardura politikoak eskuartean zituelarik, Bergarara jo zuen eta bertan politika iskanbilak landa utzirik, familiatasun aparteko giro lasaian murgildu zela, herri ugari ikusmiratu zituela, pakea bereganatu zuela eta autonomiari buruzko funtsezko iritziak zendotu zituela.» Pedro Deunaren elizan ezkondu zen Zeraingo baserri batetako Petra Arsuaga Goikoetxea andarekin, 1854.ko Ekainaren 22.an. Urte bete batez bizi izan zen, gutxi gora behera, Bergaran. Eta aipaturiko liburuaren edukia aztertuz argi eta garbi ikus genezake, Bergara eta Euskal Herriarekiko maitasun sakon bat pitzu zela bere barnean. Aitzitik, ez dazagun ahaz, Pi Margall izan zela Federalismoari buruzko lehen iritzi sakonenak argitaratu zituena, beste lurraldean berezitasunak errespetatuz, noski. (LOAPA-ren beharrik etzuen mahieratu...!). Beste literatur eta idazti politiko batzu ere, Bergaran eratu zituen.

Gai-gaiari hain egoki ez dagokion, baina konparazio gisan argigarri den kanpotiango txango hau gauzatu ondoren, laburki badere eta aurreko urtean bezala, egiteratu eta gauzatu bidean ditugun ekintzen berri eman behar dizuet, hau da, egin direnena eta egitasmotan ditugunena.

Azken urte honetan burutu ditugu edo amaibidean jarri ditugu orain hiru urte asmo soilak ziren proiektuak eta horien artean az-pimarragarrienak ondorengo hauek dituzue:

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO EGOITZA. — Lehen zatia era bat burutua dago eta, egun gutxi barru, herri osoak ikusteko eran egonen da. Bestalde, aintzinako etxe zaharraren berrantolaketari ere ekitera goazkio. Beraz, esan genezake, Gipuzkoako Hirugarren Adinekoentzako Egoitzarik bikainenetariko bat dugula eta, gainera, erosotasun ugariz horniturik.

Eguzkitaratu beharra dugu lehenik, herriaren erantzukizun guztiz jatorra eta eskertu hainbat eta hainbat pertsonen kidezko laguntza. Bestalde, bihotz zabal izango direneri ere, gure eskerrona agertu behar, beren laguntzek mugatzen eta hesituko bait dituzte gure egitasmoak.

ANBULATORIO BERRIA. — Goitik behera osatua dago eta lehen egitasmotan solairu bakarra zuen tegiak, gaur, bi ditu. Hau dela eta, «SUBESKUALDEKO OSASUN TOKI» izendatua izan da, hain zuzen. Eusko Jaurlaritzako Osasun Maparen arabera, honoko sanitat zerbitzu berezi hauek edukiko ditu: Zirugia Orokorra, Traumatologia, Dermatologia, Ispiritu Osasunta, Analisiak, Pediatria, Obstetricia, Larrialditarako Zerbitzuak, etab... Haltzari eta tresneriez hornitu gabe dagoelako, ez dago prestutua erabilketarako; baina lastergo batean, dena osatuko delakoan gaude beren finantziaketa bigarren solairukoarekin bat, onartua bait dago.

SAIHETS AUTOBIDEA. — 1981.ko Abenduaren 18.an autobide berriaren lehen zatia erabilketarako zabaldu zen, era honetan, zorionez, gure kale nagusiak autoen harahonako gatazkatistik landa utziaz. Aurreko Udalkidegoak Herri Lan Ministeritzari dohan autobide lurrik eskaini zizkiolako eta hauekiko zorrak ordain genitzan, Crédito Local deituriko Banketxeari, 1980.ko lehen egunetan, 75.000.000 etako gutxi gora beherako kreditua eskatzen derrigortuak aurkitu ginen. Honen bidez autobideko jabeei zorrak ordaindu genizkien, uste baino lehenago gainera. Aipaturiko dirutza horretatik eta hamaika joan-etorri egin ondoren, Eusko Jaurlaritzatik interes urriko eta epe gabeko 35.000.000 eskuratu ahal izan ditugu; dirutza honi 12.797.815 pezeta gehi diezazkioke regularik lur jabe bati ordaintzeko. Horrezaz gain eta gure jestioak lege orokor batetan oinarritzen genituela, Banketxearekiko zorra 37.500.000 pezetatraino beheratu ahal izan genuen.

Beraz, saihesbidea dohanezkoa izan zaio herriari. Eta itundurik dagoen egutegia eskuetan dugula eta hauen abiadura harrigarria ikusiaz, datorren Irailerako ingurumariko autobide osoa erabilgarri eran egon daitekeelakoan gaude.

KULTURA. — Pasa zen Abuztuan, Gaytan de Ayala Jaunen eskuetatik, Rekalde deituriko jauregia eta bere zuhaiztia herriratu genituen. Lehenengotan, 30.000.000 pezetetan baloratu bazen ere, herriak 15.000.000 ordaindu behar izan ditu, aldea herriaren aldeko dohango emankizuna izan delarik.

Herriarena den etxebikain honetan, Eusko Jaurlaritzak, ordenagailuz, filme gelaz, ageri konpon sailez eta abarrez hornituriko «Mikrofilmaturiko Ageri Tegia» antolatuko du Euskal Herri mailan. Obren proiektua gauzatu bidean dago eta bapatean obrei hasiera emango zaie. Jauregiaren behe plantan Euskaltegiak eratuko dira eta Euskal Autonomia Elkartea, estatistika mailan, lau eskualdetan banatu denez, hau da, hiru Hiriburuak eta Bergara (hau, geografikoki, Urola eta Durango bailaren arteko erdigune apartekoak delako, noski...), bertan Estatistika Delegazioa ezartzeko harremanetan gauzitzera.

AGARREGO ALETEGIA EDO GARAIXE. — Berriztatzeako derrigorrezko diruak batzen ari gara poliki-poliki. Izen ere, bere egitura berezia dela medio eta bere aintzinatasunagatik, lekuko bakarra eta bitxia dugu bera Euhkal Herri osoan. Proiektua eratua dugu eta obrei hasiera eman unean gaude.

TELEBISTAREN BERBIDALGAILUA. — Ez dakit kultura arlo honetan sargarría den ere, baina leerro hauiek idazten ari naizen une berean, telebista bide denak dituen berbidualgailua eratzen eta eraikitzen ari dira. Inori bizkarreragarriak ez diren nahiko atzerakizun jasan baditu ere, laster zerbitzueran egongo delakoan gaude.

USONDO ZUHAIZTIA. — Joan zen Apirilaren 11.an zabaldu zen. Harrigarri badirudi ere, apropos sartu dugu kultura mailan gai hau. Argi da atseden eta denbora pasatoki dela zuhaiztia. Eta, gainera, izugarrizko arrakasta du. Baina, baita ere, uste dut, bera zaintzen eta errespetatzen ikasten dugularik, eta beste batzu errespetatzera behartzen ditugularik, gure hiritasuna eta edukazioa gehitu egiten dugula. Bergarar guztiena delako, denok gara partaide eta eskubidedun; ondorioz, inork ez ditzala zapal bakoitzaren eskubideak eta norbaitek zuhaizti horri gaitz egingo balio, guztioi irainduko gintuzke.

KIROLAK. — Orain bertantxe amai bidean daude; Angiozarko Pilota Lekua eta Osintxukoa. Hau, bere enparantza eta guzti. Ipintza futbol zelaia ere, bukatua dago. Aranzadi Ikastolako atzeko zoru egokiketari denbora gutxi barru hasiera emango zaio. Zerrajerako txatarra parke zen tegia Polikiroldegia bihurtzekotan gaude. Agorasingo instalazio berriak, atletismo pista, jantzigelak eta Bergarako Igeri Tokien berritaketa asmotan ditugu, hauen diru ordain bideak erabat jorratu gabe badaduzkagu ere.

LASTER EGINGO DIRENAK

— Goenkaleari, San Pedro osteari Hospitaleraino, harzola jarrea.

— Epaiketa Etxea konpontzea. Hau onarturik dago eta aurrekontua 72.000.000 pezetetakoak da.

— Herriko Azoka Lekua konpondu eta berritu. Aurrekontua 8.500.000 pezetetakoak da.

— Angiozartik Elgetarainoko autobidea.

— Baserritarako Argi Indarra berriztatzea. Hau egiten ari dira eta aurrekontua 52.000.000 pezetetakoak da.

— Gaimendi auzorako bidea. Azken partea gauzatzen garregun.

— Gipuzkoako Foru Ahaldunditikako diruak: 37.000.000 pezeta. Dirutza honetan baliatuko gara Matxiategiko urbanizazioa amaitzeko, Usondo Zuhaiztiko obrak eta Irala zinema atzealdekoak ordaintzeko.

— Langabezia gutxitzeko Eusko Jaurlaritzak eratu duen Plangintzatikako dirua, ez dugu oraindik jaso; baina bidean dago.

UDAL DIRU ALTXORTEGIAREN EGOERA. — Azken hiru urte hauetan gauzatu diren obren gastuen dirutza MILA MILOIEN gainetik egon daiteke; baina herri diruak beretan jarraitu ahal izan dute, gastatuak Erakundeetikako diruak izan baitira, batipat.

Gipuzkoako Ahaldundiarekin eduki ditugun harremanen bidez, UNED-eri herriak eman behar zion dirutza nabarmenki gutxitu dugu, urteko 10.000.000 etan, gutxi gora beherra. Hau ere, lasaibide bat da, noski, herriarentzat.

50.000.000 pezetetako erosketak egin ditu Udalak lur eta etxetan, azken hiru urte hauetan. Herriaren aberastasunak argi eta garbi gehitu egin dira, beraz. Hala eta guzti, herriak gaur dituen zorrak 1979.ko Urtarrilaren 1.ekoak baino txikiagoak dira. Orduko zorra % 18,20koa zen eta gaurkoa % 16,29koa da.

Hori dena aurrean dugularik ere, ez gara baikorrak, derrigorrezko diren udal beharrei erantzuteko gure txirotasuna azkengabea eta betidanikoa baita, gure diruak erabat urriak eta eskasak izanik.

Nire azken ondorioa hauxe da: Zerbait egin dela garbi dago, bai; baina asko falta zaigu Pi Margall bezalako gizon ospetsu batek Bergara bere bizitokirik egokiena bezala har dezan.

JOSE ANTONIO ZABALA



BERGARA

**PAZKOETAKO URTEROKO JAIAK
DIRELA BIDE, BERGARAKO HERRIKO
JAI BATZORDEAK
ANTOLATU DITUEN FESTA ETA
OSPAKISUNEN EGITARAU OFIZIALA**

Arratsaldeko 7etan. Matxiategi Poligonoan
Barrakak zabalduko dira.

8etan.

Agirre Deunaren enparantzan, etxafleroz,
ikurrinez, BIKTORIANATXO beheratuz eta
Udal Eresbatzak alaituz, herriko jaiei hasiera
emango zaie. Ondoren, kalejira.

Gaueko 11etan.

Agirre Deunaren enparantzan, dantzaldia,
NEKEZ taldearekin.

1982

maiatzak 28 ostirala

Goizeko 10etan

**II. MARRAZKI ETA
MARGO SARIKETA**

eskualde mailan eta 14 urtetatik beherakoek
parte har dezakete.

Arratsaldeko 4etan. Euskadiko AJEDREZ
lehiaketa taldekkakoa.

4,30etan. Seminarioko jolastokian

ESKUBALOI PARTIDUAK

Mutil jubenilak

Bergarako K. K. - Arrasate Roneo-ren artean

Neska infantilak

Bergarako K. K. - Arrasate Roneo-ren artean

Seniorsak

Bergarako K. K. - Usurbil-en artean

4,30etan. Herriko Pilota Lekuan

**IZUGARRIZKO
ESKU PILOTA PARTIDUAK**



BERGARA

1982

maiatzak 29 larunbata



BERGARA

Arratsaldeko 5,30etan. Martin Deunaren enparantzan

ANTZERKI - ZIRKU JAIALDI BIKAÑA

Ondoren, buruhandi eta erraldoiak.

8etan.

KALEJIRA

herriko Musika Banda alaikide delarik.

Gaueko 10etan. Herriko enparantzan

SUZKO ZEZENA

10,30etan.

BRIES eta SESKA musika taldeak alaikide direlarik

DANTZALDIA

goizeko 7ak arte Martin Deunaren enparantzan.

10,45etan. Herriko Pilota Lekuan, BENITO LERTXUNDI-ren jaialdi handi eta berezia.

1982

maiatzak 29 larunbata

Goizeko 7 etan
Jubentudesetan, TXOKOLATE JANA.

9etan

Herriko txistularien GOIZ KALEJIRA.

9,15etan. Agirre Deunaren enparantzan

XLVI. PENTEKOSTE SARIA

deituriko txirrindulari Lehiaketari hasiera emango zaio.

| TOKIAK | Km. | ORDUAK |
|-----------------------------|-----|--------|
| BERGARA | 0 | 9,- |
| 4 joan etorri saihezbidekit | 16 | 9,26 |
| Antzuola | 20 | 9,33 |
| BERGARA saihezbidekit | 24 | 9,40 |
| Oñati | 37 | 10,02 |
| BERGARA | 50 | 10,23 |
| Soraluze | 58 | 10,36 |
| Eibar | 64 | 10,46 |
| Karabieta gaina | 72 | 11,02 |
| Elgeta | 74 | 11,05 |
| BERGARA | 82 | 11,16 |
| Antzuola | 86 | 11,23 |
| Deskarga gaina | 90 | 11,30 |
| Zumarraga | 92 | 11,33 |
| Legazpi | 95 | 11,38 |
| Udana gaina | 101 | 11,48 |
| Oñati | 109 | 12,- |
| BERGARA | 122 | 12,22 |



BERGARA

1982

maiatzak 30 igandea



BERGARA

1982

- Goizeko 9,15etan. Osintxuko errekastoan
AMORRAIN HARRAPAKETAKO
III. HERRI LEHIAKETA
- 9,30etan
«Bergarako Herriko» Taldekako
AJEDREZKO X. LEHIAKETA
- 9,45etan
Herriko musika bandaren
GOIZEKO KALE IBILALDIA
- 11etan
Pedro Deunaren elizan
PENTEKOSTE MEZA NAGUSIA
- Eguerdiko 12,30etan
Martin Deunaren enparantzan
KONTZERTUA
parte hartuko dute Herriko txistulariek eta
Herriko musika bandak, ondoren zehazten
diren izenburuen arabera:

maiatzak 30 igandea

HERRIKO TXISTULARIEN BANDAK

- | | |
|--------------|------------------|
| TXISTU SOÑUA | Demetrio Iriarte |
| MARITXU | Isidro Ansorena |

HERRIKO MUSIKA BANDAK

- | | |
|---------------------------|-----------------------|
| «LA MILLOR TERRA DEL MON. | |
| Kontzerturako pasodoblea | Rosillok eratua |
| «ATHALIA» | |
| Obertura | Mendelssohn-ek eratua |
| «PORGY AND BES» | |
| Selekzioa | Gershwin-ek eratua |

Arratsaldeko 4,30etan. Herriko Pilota Lekuan

ESKU PILOTA PARTIDUAK

- 6etan. Martin Deunaren enparantzan
EUSKADIKO DANTZA ASKATUKO
V. TXAPELKETA, HAURRENTZAT
Partehartzaileak: Hamalau urtetik beherako
gastetxoak.

maiatzak 30 igandea



BERGARA

1982



BERGARA

Hona hemen sariak:

| | | | |
|----|-------|-----------|------------------|
| 1. | saria | 5500 pta. | eta garai ikurra |
| 2. | > | 4500 | > " " |
| 3. | " | 3500 | " " " |
| 4. | " | 3000 | " " " |
| 5. | " | 2500 | " " " |
| 6. | " | 2000 | " " " |
| 7. | " | 1500 | " " " |

Partaide guztiekin 1000na pesetako saria jasoko dute

Arratsaldeko 7,30 etan

«MAUXITXA» musika taldeak alaituriko

KALEJIRA

Gaueko 10,30 etan

Ordu honetan hasiera emanda eta goizaldera arte, Martin Deunaren enparantzan

DANTZALDIA

AKELARRE taldeak alaituta.

10,30 etan. Herriko Pilota Lekuan

IZUGARRIZKO

ESKU PILOTA PARTIDUAK

1982

maiatzak 30 igandea

Goizeko 9,30 etan. Herriko kaleetan zehar

SOKAMUTURRA

10 etan. Herri mailako

USO TIRAKETA

TIROZ

Lekua: MAYC inguruko zelaian

Antolatzailea: «Ollagorra» Elkartea

11 etan

Seminarioko jolastokian

ABIADURA LEHIAKETA

PATINETAN

1. Hamaika urtez beherako mutilak
1000 metrotan
2. Hamabi eta hamairu urtetako mutilak
3000 metrotan
3. Hamar eta hamairu urtetara arteko neskak
1500 metrotan



BERGARA

1982

maiatzak 31 astelehena

**BERGARA****1982**

Eguerdiko 12,30etan
Martin Deunaren enparantzan, Herriko musika
bandaren

KONTZERTUA

ondoren zehazten diren izenburuen arabera:

«PUENTEAREAS»

Kontzerturako pasodoblea Soutullo-k eratua

«EURYANTHE»

Obertura Weber-ek eratua

«EL CASERIO»

Selekzioa Guridik eratua

Arratsaldeko 3,30etan

USAKUME BOTAKETAKO**PENTEKOSTE LEHIAKETA****HANDIA**

Lekua: MAYC inguruko zelaian

Antolatzalea: «Ollagorra» Elkartea

200.000 peseta banatuko dira saritan

Zidarrezko garai agiria

Arratsaldeko 4,30etan. Herriko Pilota Lekuan

IZUGARRIZKO**ESKU PILOTA PARTIDUAK**

6etan. Seminarioko jolastokian

HERRI KIROLAK**Haizkolariak:**

Arria - Laskurain eta Mindegia - Agirrezabal
haizkolarien arteko norgehiagcketa.

2 enbor, zutik�eran, 45 pulgadetakoak

Enbor 1, zeharkaeran, 108 pulgadetakoak

4 enbor, zeharkaeran, 54 pulgadetakoak

8 enbor, trontzaz, 54 pulgadetakoak

Harrijasotzaileak:

Laurak bat eta Kostei - Celhay. Hau, hamar
minututan, 10.000 klo bizkarreratzen ahalegin-
duko da.

**BERGARA****1982****maiatzak 31 astelehena****maiatzak 31 astelehena**



BERGARA

Arratsaldeko 8etan

Ordu honetan hasiera emanda eta goizaldera arte, Martin Deunaren enparantzan

DANTZALDIA

EGAN taldeak alaituta.

Gaueko 9,30etan. Martin Deunaren enparantzan

SUZKO ZEZENA

Egun osoan zehar TRIKITILARI bikote ospetsu batek eta LOS INCANSABLES txarangak alaituko dituzte kaleak.

1982

maiatzak 31 astelehena

KUADRILEN EGUNA

Goizeko 9etan. Herriko Txistulari taldeak alaituriko

GOIZ KALEJIRA

9,30etan. Herriko kaleetan zehar

SOKAMUTURRA

12etan.

«Gaztetegian» salda, ardo eta txistorra lagun taldeentzat.

12,30etan. Agirre Deunaren enparantzan Aranzadi Ikastolako DANTZARIEN ekinaldia.

Arratsaldeko 4,30etan. Herriko Pilota Lekuan

IZUGARRIZKO ESKU PILOTA PARTIDUAK

4,30etan. Agirre Deunaren enparantzan, GUIÑOL antzerkia.



BERGARA

1982

ekainak 1 asteartea



BERGARA

Arratsaldeko 5etan
Bergarako «Jubentudes»ek antolatutako
«GYNKANA» lehiaketa kuadrilentzat.

6,30etan. Agirre Deunaren enparantzan

ZEZENAK

Gaueko 9,30etan

Ordu honetan hasiera emanda eta goizaldera
arte, Martin Deunaren enparantzan

DANTZALDIA

EGAN taldeak alaituta.

Egun osoan zehar LOS INCANSABLES
txarangak alaituko ditu kaleak.

12etan.

BIKTORIANATXORI azken agurra.

OHARRA

Herri jai Batzordeak ez ditu beregain hartuko,
inprudentziaz edo beste arrazoientzat gerta
deitezke enistripuak herriko jai egunetan Bergaran.

1982

ekainak 1 asteartea

BERGARA

ALDE HISTORIKO, ELIZA eta ETXEBIKAINAK
KALETATEGIA

Bergarako Udalak argitaratu duen liburuaren izenburua da. Bere edukia zabala; baina, laburki badere, hontan datza: Herriko kale guztien izenak, baserri ororen aipaketa, kaleen izenketa berriak, herriaren oraingo zatikaketaren nolatasuna eta biztanle zerrenda atalak.

Hori dela medio, herriaren historia azaldu eta azpimarragarrien diren etxebikainen deskribapena egiteratu ditugu. Hori dena, ez noski gorenetakoa mailatan, xeheki eta herri mailan baizik.

Donato Gallastegi Jaunak Bergarako auzoen laburpen historiko eta atsegin bat antolatu du. Jesus Arregi Jaunak, Ianda utz ezin daitezkeen ñabardurak azaleratuz, Etxebikain, Jauregi eta Elizen egitura gauzatu du. Eta Rikardo Otaño Jaunak, berriz, libururatu apaindurak landu ditu lumazko dibujo ugari eta eder eratuz.

Hori dena nahiko ez bailitzan, Gilen Azkoaga Jaunak Deba Garai Udal Elkarteari buruzko lan bat jorratu du, liburu osoko goi guztien lotura bezala, Xabier Aranburu Jaunaren bi artikulu, Gipuzkoa eta Euskal Herriari buruz hain zuzen, azaltzen direlarik.

Lan denak txalogarriak egiazki, sakonak eta ongi dokumentatuak eta, esan beharrekoa hau ere, dohanekoak direlako.

Liburu honen salneurria txit merkea da, erdiprecioan kaleratzen baita. Baina derrigorrezkoa eta justiziazko saigu laguntzaileak aipatzea; Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Gipuzkoako Ahaldundia, Bizkaia - Santander Banketxeak, Aurrezki Kutxak bai Probintziala, bai Munizipala eta, azkenik Udala bera.

Irakurgarria eta gordetzea merezi duen liburu bat delakoan, kaleratzen dugu.

BATZORDEAK

BERGARAKO PENTEKOSTE PAZKO JAIAK

Honelakoetan sarritan gertatzen den bezala, denborarik eza delako edo... gai urritasuna delako edo... derrigorrezkoa dut nolabaiteko «HONDAR BATUKETA» bat soilki antolatzea. Hala ere, kasu honetan, nire burua ongi orraztuko dudalakoan nago.

Bergara, aintzina-aintzinatik, Pazko ospakizunekin lotuta dagoela edozeinek daki. Eta, herriko jaietarako programarako zerbait prestatu nahiko lan hauek eratzean erabili ohi izan ditudan paper zahar artetik, argi eta garbi ondoriotu dut gure jaien oinarri historikoa, Elosuko garai haietako festa ospakizenetan datzala.

Zaletza gabe baiezta dezakeguna zerau da: Festak Elosutik herriranztu ziren une beretik, hurrengo ospakizun era hauek antolatu ohi izan direla: Musika saioak, kirolak, eliz funtzi apartekoak, zerupeko azokak, lan tresna-gailu-instalazioa erakusketak, hau da, betidanik azoka parkea deritzona.

Hori dela medio, betidanik jente multzo izugarria bildu ohi izan da Bergaran. Jende honen honetaratzearen zergatik, hurrengo arrazoi hauetan oinarrituko nituzke nik:

1. — Lehenik, eta hau da garrantzitsuena, garai honetan ez dela ospatzen Deba Garaiko herriean, edo Gipuzkoa osoan behar bada, beste festa ospakizunik. Ondorioz, festazaleek honuntz jotzen dute.

2. — Jendetza multzo handiak aipatzerakoan, lehengo denborei buruz ari natzaizue, noski. Gaurregun, azken berrogei urte hauetan bereziki, herrietako festak aldaketa sakonak jasan bait dituzte. Bigarren zio bezala, hurrengo hau aipatuko nuke: Ingurueta musika bandak hona etortzea, alegia. Honela, Bergaran ikusi eta entzun ohi izan diegu Arrasate, Eibar, Oñati, Soraluze, Aretxabaleta, Eskoriatza, Zumarraga eta abarretako Musika Bandei. Halaxe, beste herrietatik autobuskadaka eta trenkadaka etorri ohi zen jendea, inguruko herriak hustuta gelditzen zirelarik.

3. — Aurrez aipaturiko hiru arrazoi hoiezaz gain, orain azpimarratuko ditudanak ere gogotan hartzekoak dira: Gai erosle eta tratahariak hemen biltzea, pilotu partidu bikainak antolatzea, zirku ikuskiak honatzea. (Hiru zirku batera ikusi ohi izan ditugu urte berean...). Zer etzen etortzen hona...! Eta ikuski hauetan denek milaka ikusmiratzale erakartzen zituzten herrira.

San Pedroren elizan abesten ziren Mezen artean, bazen bat, Retanaren garaietan, orkestaz eta organuz hornitua, Pazko bigarrenez, astelrehenez beraz, abesten zena, Garcia Musikariak eratua, aparteko arrakasta zuena. Meza honen egikera atsegin zitzaison orduko musikazaleari, behar bada, oso handikoia zelako edo, ba al dakit ba nik zergatik... Aitzitik, astelehena zinez, hemengoari konpetenzia egingo zion Meza Nagusirik, garrantzi handikorik behintzat, etzen izango, noski, beste herriean eta horregatik eta beste zergatik batzurengatik, hona abiatzen zen jendea. Erakartasun honen frogabide bezala, adibide bat azañduko dizuet: Azkoitiko seme eta pilotari famatua zen «Sustarra», astelehen honetan, oinez etortzen zen bere jaloterritik Bergarara. Meza entzun, arratsaldez pilotu partidua jokatu eta, Elosutik zehar, berrazkoitiratzen zen gaberako.

1905.an, azoka plazan, Euskal Festak zirela eta, Bilboko «Orfeón Euskeria» eta Bergarako tipleek abeslari zirelarik, «Txanton Piperri» abestu zen Bergaran. Elustiza antolatzaile zelarik. Gidaria Zapirain Jauna, operaren era-tzailea hain zuzen, izan zen. Elustiza hau, musikasortzaile, Bergarako seme, Sevillako katedraleko organulari eta 1919.an bertan hil zen, Juan Bautista Izenduna izango dela, uste dugu.

«Txanton Piperri» bi egunez antzestu zuten, Urriaren 5.ean eta 9.an. Abeskide aipagarrienak, beste askoren artean, hauetan izan ziren: Isabel Serra tiptelsa, Felipe Arando baxua, Gerbasio Erzilla, Jose Berasategi eta Elizio Irigoyen baritonoa. Oroiterloju bana eman zitzainkien beren «dohantasnagatik». Leonardo Txarroalde, Euskeria Orfeoiko Buru zenari; Teribio Alzaga, liburusken argitaratzaleari; Buenaventura Zapirain, musikaeratzaleari eta Migel Mendizabal antzestokiaren aurre margotzailcari ere, **oroitordulari bana** oparitu zizkieten.

Iraileko azken egunetan ospakizunak gauzatzea, pentsatu zen lehenengotan. Baino Probintziako Ahaldundiak hala erabaki zuelako, atzeratu eta Urria ospatu ziren. Honek iskanbila bitxiak ere sortu zituen. Adibidez, egun hoietarako antolatua zegoen musika lehiaketa batetan Villabonako Bandak parte ez hartza, bandakide batzu pelotariak baitziren eta zio honegatik herritik at izango ziren kontzertu egunean.

Euskal Festak zirela eta, hitzaldien aspergarritasuna urrezten eta antzezaspakizunak bikaintzen eta alaitzen partaide izan zirelako, eskerrona kaleratu zien herriko Udalak hurrengo artista huae: Olaizola Jaunari, Matilde Tapia tripletsari eta Natividad Peña piano jotzaileari.

Handikemendikako albisteak aipatu ditudanez, interesgarri dela deritzait hurrengo hau ere ohartea: 1905.go Euskal Festak zirelako, «Euskal Fedea» antzerki taldeko Buru zen Jose Berra Jaunak, Bergarako Udalari eskaientza hau aurkeztu zion; Bi egunetan, 1.000 pezetetan eta gastuak beraiek bizkarrenatzen zituztelarik, antzerki hauek argitaratzea: Lehenengo egunean, «Urrutiko Inchaurrak», «Mariya» eta «Alkate Berriya». Eta bigarren egunean, «Bishenta Praisku» eta «Abek istillubak».

Aurrez, antzerkien izenburuen idazkera errespetatu nahi izan dudala mahieratuz eta datu zehatzik eskuartearen ez badut ere, ospaketa hauek egiteratuko zirela, pentsatzen dut. Izan ere, 1.000 pezeta gastatzea obra hain ezberdinak ikusmiratzeko, ez baita beste munduko gastua...!

Martin Agirre Deunaren onespenezko ereserkia sortzeko lehiaketa bat antolatu zen urte honetan, 1905.an hain zuzen. Epai mahaia Buenaventura Zapiain Uribe, Alejandro Gimenez Elorriaga eta Ramon Ruiz (Potxoko) Jaunek osatzen zuten. (Ezken aipatu dudana, Bergarako Bandako zuzendaria zena eta Valenciako Erregimenduko zuzendari chia). Epai Ekainaren 15.ean kaleratu zuten. Garaitzailea «bedeinka ezazu zure jaiotz erriya» idazburua zuen konposizioa izan zen Zumarragako Alberto Garaizabal musikariak eratua. Saria 150 pezetetakoak. Ereserki hau gaur ere abesten da Bergoran, elizako ospakizun seinalatuetan.

Nolabaiteko saltokietan kokaturiko salgaiak honoko hauek izaten ziren gutxi gora behera: Garaiko ehunak, jazki landuak, aterkinak, oinetakoak, etxegailuak, sukaldaroko tresnak, ordulariak, pitxiak... Azoka, larunbat, igande eta astelehenez egiten zen turutaka eta zarataz; eta, batzutan, haserre, saltketetandiko haserre biziz, noski.

Garestia zen salkia eta gehien interesatzen zitzaiena, berehalako batean kanporatzen zuten diru bero eta ugariz poltsikoak betetzen zituztelarik. Lehenengo egunetako zarata eta hotsa, zoratzekoia izaten omen zen. Astearako, berriz, ez dakigu noren azpieraginez, nor izango zen aintzindari batzailea, baina salneurriak berdinera etortzen ziren eta azken hondarrak saltzen zituzten berriro sosa oparoak patrikaratzen zituztela.

Orduan, etzegoen, noski, komertziorako teknikak irakasten zituen eskorlarik, baina berezko zen marketinga eta salteknikak erabat menperatzen zituztela, argi da.

1762.an Alkate eta Epaileek kaleraturiko udalagindua, gure gaurko iritzitan oinarritzu aztertzen baditugu, jantsenista edo gogorkeria kutsua dutela iruditzen zaigu. Horietariko udalauren batek, adidibidez, zerau zehazten zuen «Gau "Avemariak" jo ondoren kaleratzen ziren alaba eta neskameak, inolako biguintasun gabe, zigor zitzatela».

Baina epaia kanporatzerakoan alde denak eduki behar dira kontutan. Eta ikus: Goi Agintariekin, noizeanbehin, biztanleren batzuri dei egiten zieten «Informaciones de residencia» zeritzainenak eman ziezazkieten. Hauen edukia zerau zen: Alkateek beren udal barrutietako legez atikako ohekidezak, joku debekatuak, lukularitza, fedezte, biraolari eta beste huts batzu, zigorke utzi, mahaiperatu edo amor eman zituzten.

Gainzainketa honek Herri Agintariak derrigortzen zituen, indarrean zeuden legeak bete eta bete erazteria.

Udal Gizonek, garai haietan, burutzen zituzten erabakiak, gehienbat, moral kutsua edukitzen zuten eta praktikarakoak izaten ziren. Epe labur batetan, onartu zituzten akordio batzu gogoratuko ditugu:

1.— 1737ko Abenduaren 14an, honoko hau izenpetu zen: Espiritu Santuaren omenezko Igandeko festetan, kanpotikako saltzaileek «mistela» soilki sal zezatela. Sermolari eta Sendagileek kexa ugari aurkeztu eta, beraien iritziz, ondorio txarrak bait zekartzan pattar gehiegi urdaileratzeak. Zigorra, hau zen lege hapurtzaileentzat: 100 errealeko amanda eta 9 egunetarainoko espetxeratzea.

2.— 1744ko Uztailaren 21erako, San Roke, herriko Zaindariaren omenez, bertatikako zezenketa bat antolatu zuten. Baino gastuak, zezenen erosketa barru zela, Agintariekin, hau da, Alkate, Sindiko eta Udalkideek ordaindu beharko zituzten bakoitziari agintari mailan zegokion neurrian. Bestalde, Donostian, egun honetan bertan, Gaztelatikako zezenen jaia zegoelako, bi festak batera ez zitezen, Abuztuaren 11.an gauzatzea erabaki zuten.

3.— 1746ko Urtarrilaren 31an, urte berean, sagar zaku handi batek eman lezakeen sagardoaren zenbataren neurketarako ikerketa bereziak egiteratzea, erabaki zen; ezohizko Epaile baten aurrean egin zitzatela sagardoketak bere ontasuna eta abantaila ekonomikoak funtsezko eritzibide zirelarik.

Eta lantxo hau ezin dezaket burutu, hurrengo albiste hau argitaratu gabe. «1623eko Iraillaren azken egunean, Pedro Izagirre Ortega, Alkate Jaunak, beste agindu batzurekin bateran, honoko hau kaleratu zuen: Meza entzuteko agindua dagoen egunetan edo Igandeetan, zamadun eta zama-gabeko mandazainik ez zedila irten Meza entzeteke herri honetatik. Kanpotarrak, Meza entzunik, abia zitezkeela. Bertako biztanleek jai egin zezatela egun osoan zehar; bestela, 200 marabedisetako amanda ezarriko zitzaiela Santisimoaren argitarako. Edozein herritarrek sala zitzakeen eta multa eazar ziezaikeen».

Testu hau aurrean dugularik, esamesak errazak eta iheskorrik zaizkigu. Aipaturikoa ez da, noski. Alkatekada bat, biraolari amorratuak kontsideratuak zirenekiko onginahi baten ondorioa baizik... Izagirre Jaunak aurre iragarki zamadun honen indarrez, onean edo beharrean, abeltzainak elizarrantz gerturatzea gura zuen, han Jaunaren begirakada onbideraeraginkorrik jasan zitzaten.

DONATO GALLASTEGI

BERGARA

ASPECTOS HISTORICO - MONUMENTALES CALLEJERO

Es el título del libro editado por el Ayuntamiento.

En él se recoje el callejero completo, con mención de todos los caseríos de la Villa, la denominación de las nuevas calles, y la descripción de la nueva configuración de los distritos y secciones censales. Un mapa urbano ilustra su situación.

Todo ello ha sido una inmejorable excusa para resaltar algunos aspectos histórico-monumentales de nuestra Villa, que merecen particular interés, y que han sido descritos sin más intención que la propiamente divulgativa.

Donato Gallastegui, hace un ameno esbozo histórico de los barrios de Bergara, y Jesús Arregui resalta los Palacios y Casas Solariegas de nuestro Pueblo, con datos de indudable interés. Todo ello ilustrado con numerosos y magníficos dibujos a plumilla de Ricardo Otaño.

Todo este esquema, queda enmarcado por el artículo de Gilen Azkoaga, sobre la Mancomunidad del Alto Deba, y ésta a su vez, por los artículos sobre Gipuzkoa y Euskalherria de Xabier Aramburu.

En fin, una serie de desinteresadas colaboraciones dignas de elogio.

Este libro, se ha puesto a la venta a menos de la mitad de su costo, gracias a la financiación de la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, Diputación de Gipuzkoa, Banco de Vizcaya, Banco de Santander, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa, y el propio Ayuntamiento.

Un libro de indudable interés, que merece la pena leer y conservar.

La Comisión

PASCUA DE PENTECOSTES EN BERGARA

Por determinadas circunstancias que tienen que ver con la falta de tiempo y con la escasez de datos y elementos que constituyen la parte esencial de trabajos de esta naturaleza, voy a verme precisado a utilizar en esta ocasión «rebañaduras» que estimo muy aprovechables para salir airoso del trance.

La vinculación de nuestro pueblo con las festividades de la Pascua de Pentecostés arranca desde tiempo inmemorial, y en el trasiego de papeles que he solidado realizar en búsqueda de datos necesarios para preparar esta «entrada» a los programas de fiestas de cada año, se ha visto claro que se inició con la organización de unas ferias en el barrio de Elosua de este término municipal.

Lo que sí se puede afirmar es que a partir de trasladar la fiesta al núcleo urbano de la villa, desde tiempos que van siendo remotos, se han venido organizando festejos musicales, deportivos, actos religiosos solemnes, mercados al aire libre, y actividades comerciales con características muy especiales, montaje de máquinas, aparatos e instalaciones que configuraban lo que clásicamente se ha denominado siempre como parque de feria.

Es evidente que estos elementos, individual y colectivamente, contribuyan a conseguir la proverbial masa de gentes en nuestro pueblo pero, como es natural, no en la misma proporción. Si yo tuviera que establecer una relación en orden a prioridades de atracción, lo haría de esta forma:

1.º— Concederfa preferencia, en primer lugar, a la fecha de celebración de la Pascua de Pentecostés, pues el hecho de su colocación en el calendario festero anual es indudablemente trascendental, pues son las primeras fiestas en los pueblos del Alto Deva y quizá de Guipúzcoa y ésto excluye toda otra concurrencia.

